



UDAL INFORMAZIOA 2020KO URRIA



HERRIAN EROSIZ, HERRIA BIZIRIK

Herrian erosiz, herria bizirik lelopean, udalak herriko zerbitzuak suspertzeko erosketa bonuak atara ditu. Egitasmoarekin bat egin duten **herriko zerbitzu, ekoizle eta komertzioetan eskatu** beharko dira. 20 euroko erosketaren truke, bortz euroko laguntza emanen da Arantzako zerbitzu batean gastatzeko. Eta 40 eurotik goitiko erosketa eginez, laguntza hamar eurokoa izanen da.

Gisa honetara, Arantzako aritzen diren hainbat sektoretako eragileei bultzada eman nahi dio udalak, herriari bizitasuna emateaz gain, herrian lanpostuak mantendu eta tokiko ekonomia indartzen dutelako. Bide batez, konfinamendu garaian itxialdiaren eraginez izan zituzten ondorioak arintzeko laguntza eman nahi die. Horrekin batera,

ez dugu atzendu behar herriko zerbitzuak ez direla galtzen kanpokoek herrian kontsumitzen ez dutelako, bertakoek bertan erosten ez dutelako baizik.

Erosketa **bonuak aranztarrentzat** izanen dira, zerbitzu hauetan gastatzeko: Aterpe, Burlada, Pabloenea eta Primi ostatu-jatetxeetan, Dena eta Apezenea janari-dendetan, Arantza Hotelean, Amaia Apezetxea, Blanka Taberna eta Eli Iturriaren ile-apaindegietan eta Mikel Leizaren baserriko produktuetan. Bonuak **asteburu hone-tatik aitzinera** izanen dituzue eskura, aipatutako zerbitzu eta komertzioetan eskatuz, eta bonuak agortzean bukatuko da kanpaina. Segi dezagun bizirik dagoen herri baten alde elkarlanean!

EGUR LOTEAK



Azaroaren 6a bitarte zabalik izanen da egur loteak eskatzeko epea. Bi maneratan egiteko alderdia izanen da:

1. Alde batetik, enpresaren bitartez, egurra –kasu honetan haritz amerikarra– kamioian etxeraino eramane da. Beti bezala, kamioi erdi bat izanen da lotea.
2. Bertetik, norberak egurra nahi bezala garraiatzeko aukera izanen du.

Herriko deposituaren gaineko aldean dauden pagoak loteetan ateratzeko aukera ere izanen da. Lote aunitzik izanen ez denez, izena eman ahala emanen dira, lote kopurua bete arte.

LARRE ERRETZEA



Larreak erretzeko eskaerak egiteko epea ere irekia dago. Erreketak herri lurretan egin nahi izanez gero, herriko etxean egin beharko da eskaera.

TRASTE HANDIAK

Lerro hauen bitartez, berriz ere oroitarazi nahi dizuegu Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak etxez etxe biltzen dituela neurri handiko trasteak. Zerbitzua doakoa da eta telefono honetara deitu baino ez da egin behar:

672 04 57 34




HEMEN DA EUSKARALDIA!

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da Euskaraldiaren bigarren edizioa, herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea helburu duen ariketa. 2018an egin zen lehenbiziko aldiz eta aldi hartan, hainbat izan ginen *ahobizi* eta *belarriprest* moduan parte hartu genuen arantzarrak. Aurten ere, bide bera hartzera animatu nahi zaituztegu. *izenematea.euskaraldia.eus* atarian eman dezakezue izena.

Zer da ahobizi? Ulertzen duten guztiei euskaraz egingen diena izanen da. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edozeinekin euskaraz ariko dena.

Gehiago ere bai. Ezezagunekin ere lehenbiziko solasa euskaraz egingen duena izanen da.

Zer da belarriprest? Euskaraz dakiten guztiei berari euskaraz egiteko gonbitea egingen diena. Euskara ulertzen duela adieraziko du eta berarekin euskaraz solas egin dezatela eskatu. Erantzuna euskaraz edo erdaraz emanen du, baina euskaraz egiteko eskatuko du.

Bertzalde, aurtengo berrikuntza **ariguneak** izanen dira, hau da, euskaraz aritzeko guneak. Arantzan zazpi entitatek eman dute izena, eta horien artean, Arantzako Udalak.



ETA ZUK ZER DIOZU?

Herri bat denon artean egiten da. Herriko Etxean sartu aitzinetik hala adierazi genuen eta bide horretan, udal ireki baten aldeko apustua berretsi nahi dugu. Horretarako, bereizketarik egin gabe, herritar guztien behar eta iritziak kontuan hartu nahi ditugu eta hauxe duzu horretarako aukeretako bat. Idatzi hemen zure kezka eta proposamenak eta esku zabalik hartuko ditugu Herriko Etxean. **ESKERRAK AUNITZ!**
